



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientziak

2021-2022

**SEDENTARIOAK DIREN PERTSONA NAGUSIAK AKTIBOAK BILAKATZEKO PROIEKTU GIDATUA ETA
MAILAKATUA**

AUTOREA: Maria Arreche Latienda

ZUZENDARIA: Montserrat Otero Parra

2022ko Maiatzaren 19a

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Marko teorikoa	8
2.1. Zahartzaroaren kontzeptua	8
2.2. Zahartzaroaren ondorioak gorputzeko sistema ezberdinetan	8
2.2.1. Sistema muskulu eskeletikoa	9
2.2.2. Sistema kardiobaskularra	9
2.2.3. Sistema endokrinoa	10
2.2.4. Nerbio sistema	10
2.2.5. Aspektu psikologikoak eta sozialak	10
2.3. Jarduera fisikoak pertsona nagusiengan ditzuten onurak	11
2.3.1. Sistema muskulu eskeletikoan	12
2.3.2. Sistema kardiobaskularrean	13
2.3.3. Sistema endokrinoan	13
2.3.4. Nerbio sisteman	14
2.3.5. Aspektu psikologiko eta sozialak	15
2.4. Sedentarismoaren Ondorioak	15
3. Arrotxapea auzoko pertsona nagusien bizi ohiturak suspertzeko proiektu pilotorearen proposamena	23
3.1. Iruñeako Arrotxapea auzoko datu demografikoak	23
3.2. Iruñeako Arrotxapea auzoko Jarduera Fisiko eskaintza publikoa pertsona nagusiei zuzenduta	24
3.4. Proiektu Pilotorearen Faseak	25
3.4.1. Lehenengo Fasea: Proiektuaren dibulgazioa	26
3.4.2. Bigarren Fasea: Etxean burutuko den Jarduera Fisiko programa gidatua	26
3.4.3. Hirugarren Fasea: aire librean burutuko den Jarduera Fisiko Programa Gidatua	48
3.4.4. Laugarren Fasea: Instalakuntza publikoetan burutuko den Jarduera Fisiko gidatua eta lagundua	58
3.4.5. Bosgarren Fasea: era autonomoan burutuko den Jarduera Fisikoa	59
4. Ondorioak	61
5. Erreferentzia Bibliografikoak	62
6. Eranskinak	68
Eranskin A	68
Eranskin B	68
Eranskin C	71
Eranskin D	74

Eranskin E.....	75
Eranskin F.....	75
Eranskin G	75
<u>Eranskin H.....</u>	76
Eranskin I	77

Taulen aurkibidea

Taula 1	16
Taula 2	17
Taula 3	17
Taula 4	18
Taula 5	19
Taula 6	30
Taula 7	31
Taula 8	32
Taula 9	33
Taula 10	34
Taula 11	35
Taula 12	37
Taula 13	38
Taula 14	39
Taula 15	41
Taula 16	42
Taula 17	43
Taula 18	45
Taula 19	46
Taula 20	51
Taula 21	52
Taula 22	53
Taula 23	54
Taula 24	55
Taula 25	56
Taula 26	57

Irudien aurkibidea

Irudia 123

Laburpena

Gaur egun gero eta pertsona nagusi gehiago daude, eta 2050erako bizi-itxaropena hamar urte handituko dela aurreikusten da. Zahartzaroak, endekapen garrantzitsuak dakartza gorputzeko sistema ezberdinetan eta jarduera fisikoa egiteak, gainpisu eta obesidadea, kolesterol altua, diabetesa, bihotzeko arazoak, osteoporosia eta presio arterial altua hobetzen ditu besteak beste.

Nahiz eta jarduera fisikoak pertsona nagusiengan dituen onurak jakin, oraindik pertsona nagusi sedentarioen kopurua oso altua da. Gainera, Covid-19aren pandemian bizitako konfinamenduak pertsonen arteko harreman eza eta distantzia soziala derrigortu zuenez, pertsona nagusi askoren isolamendua areagotu zen, bizi kalitatearen endekapena areagotuz. Hori dela eta, lan honetan Iruñeako Arrotxapea auzoko pertsona nagusi sedentarioei bideratutako proiektu pilotu bat aurkezten da. Proiektu pilotu honen helburua, Iruñeako Arrotxapea auzoko pertsona nagusiei instalakuntza publikoetan eskeintzen den ariketa fisiko programa egoki batean parte hartzen laguntzea da, bizi ohitura osasuntsuak lortuz. Laguntza hau, progresiboa, egokitua eta indibidualizatua izango da. Proiektu pilotu honek bost fase ezberdin izango ditu. Lehenengo fasea, proiektuaren dibulgazioa izango da, bigarrena, etxean burutuko den ariketa fisiko programa indibidualizatua, hirugarrena, aire librean burutuko den ariketa fisiko programa gidatua, laugarren fasea instalakuntza publikoetan burutuko den ariketa fisiko gidatua eta lagundua, eta azkenekoa, era autonomoan burutuko den ariketa fisikoa.

Hitz gakoak: Zahartzarora, pertsona nagusiak, sedentarismoa, Jarduera fisikoa, Ariketa fisiko programa, proiektu pilotoa

1. Sarrera

2019an mundu mailan 65 urte baino gehiagoko 697 milioi pertsona zeuden. 2015-2050 urte bitartean munduan 60 urte baino gehiago duten pertsonen portzentaia ia bikoiztu egingo da %12tik %22ra pasatuz (Organizacian Mundial de la Salud, 2021) eta bizitzaren batz besteko itxaropena 20 urte luzatu da 1950etik gaur egun arte. Gainera, 2050 urterako uste da bizi itxaropen hori 10 urte gehiago luzatzea (Alvarado & Salazar, 2014). Beraz, gaur egun inoiz baino pertsona nagusi gehiago dago eta tendentzia horrela jarraitzea da.

Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako graduko laugarren mailako Adineko Pertsonen Osasunerako Jarduera Fisikoaren irakasgaiak, jarduera fisikoak pertsona nagusietan duen garrantziaz ohartarazteko aukera eskeintzen du. Izan ere, jarduera fisikoak pertsona hauen bizi kalitatea hobetu egiten du eta irakasgaiak, pertsona nagusien osasunean jarduera fisikoak duen garrantzia ulertzeko aukera eskeintzen du. Jarduera fisikoa beraz, pertsona nagusien bizi kalitate eta osasuna hobetzeko baliabide ezinbestekoa da. Baina 2020an Covid-19 dela eta, konfinamenduak pertsonen arteko harreman eza eta distantzia soziala derrigortu zuen. Modu honetan, pertsona nagusi askoren isolamendua areagotu zen, bizi kalitatearen endekapena areagotuz.

Modu honetan, Covid-19ak eragindako isolamenduak pertsona nagusi askok zituzten ohitura aktiboak desagertarazi ditu, sedentarismoa handituz. Sedentarismo honek, ondorio larriak sortzen ditu, hala nola, gainpisu eta obesidatea, kolesterol altua, diabetesa, bihotzeko arazoak, osteoporosia, presio arterial altua, besteak beste.

Beraz, Covid-19aren ondorioz eman diren bizi ohitura eta jokabideen aldaketek pertsona askoren bizitza kaltetu dute. Batez ere pertsona nagusiena, besteak baino zaurgarriagoak direlako. Eta hau da GRAL honen gaia aukeratzearen arrazoia, Covid pandemia ondorioz bizitza sedentarioagoa duten pertsona nagusiei laguntzea bizi ohitura aktiboagoak bereganatzen hain zuzen ere. GRAL-ak aukera paregabea eskeintzen du graduan bereganatutako edukiak praktikan ipintzeko. Beraz, GRAL honetan Arrotxapea auzoko pertsona nagusi sedentarioei bideratuta egongo den proiektu pilotu bat aurkeztzen da hurrengo urtean Iruñeako udaletxeari aurkezteko. Lehendabiziko pausu bat da proiektu erreal bat diseinatzeke eta lan esparruan murgiltzeko. Eta proiektu honen helburua, Iruñeako Arrotxapea auzoko pertsona nagusiei instalakuntza publikoetan eskeintzen den ariketa fisiko programa egoki batean parte hartzen laguntzea da. Laguntza hau progresiboa, egokitua eta indibidualizatua izanda.

2. Marko teorikoa

2.1. Zahartzaroaren kontzeptua

“Organización Mundial de la Salud” (OMS, 2009) erakundeak zahartzaroa, sorkuntzan hasten den prozesu fisiologikoa bezala definitzen du, bizi ziklo osoan espezieen ezaugarrietan aldaketak eragiten dituen. Aldaketa horiek mugatu egiten duten organismoak ingurunearekiko duen moldagarritasuna eta gizabanako beraren organoetan edo gizabanako ezberdinetan gertatzen diren erritmoak ez dira berdinak (OMS, 2009). Bere ezaugarrien artean hauek ditugu:

- Unibertsala da, hau da, izaki bizidun guztiei dagokie.
- Progresiboa da, bizitza igarotzean organismoan efektuak sortzen dira, eta metatzean zahartzearen berezko aldaketak sortzen dira.
- Itzulezina da, gaixotasunak ez bezala, ezin da gelditu edo itzuli.
- Heterogeneoa eta indibiduala da: espezie bakoitzak zahartzearen abiadura bereizgarria du, baina deklinazio funtzionalaren abiadura asko aldatzen da subjektutik subjektura eta organotik organora pertsona beraren barruan.
- Zahartzaroarekin gizabanakoen funtzioak pixkanaka galtzen dira.
- Intrintsekoa da: ez da ingurumen-faktore alagarriengatik ematen.

Baina azkeneko 25 urteetan zahartzaroaren inguruko paradigma berria sortu da. “Zahartzaro aktibo eta zahartzaro osasuntsua”-ren kontzeptuak agertu egin dira eta hauei eman zaien esanahia ere asko aldatu da. Zahartzaro aktiboa beraz, osasun partaidetza eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua da, zahartzen diren pertsonen bizi kalitatea hobetzeko (OMS, 2002). Eta zahartzaro osasuntsua, zahartzaroan ongizatea ahalbidetzen duen gaitasun funtzionala sustatzeko eta mantentzeko prozesua da. Gaitasun funtzionala, pertsona nagusiek haientzat garrantzitsuak diren gauzak egin ahal izateko aukera ematen dieten atributuak dira (OMS, 1990). Beraz, organismoaren endekapenean soilik oinarritzen zen kontzeptu batetik, gizabanakoen erlazio sozialak baita kontuan hartzen duen kontzeptura igaro da.

2.2. Zahartzaroaren ondorioak gorputzeko sistema ezberdinetan

Gizakia 20 urte arte eboluzionatzen du, baina urteak pasa ahala honen inboluzioa dator (Lara et al., 2008). Adineko pertsonak zahartzearekin lotutako aldaketa fisiologiko eta estrukturalak izaten dituzte eta aldaketa horien ondorioz aldaketa fisiologiko asko ematen dira, hauek, pertsonen artean oso ezberdinak direlarik.

2.2.1. Sistema muskulu eskeletikoa

Sistema muskulu eskeletikoak, hezurretan, artikulazioetan eta giharretan aldaketa desberdinak jasaten ditu. Hezurrek bere luzerari eusten diote baina hezur masaren galera ematen da (Salech et al., 2012). Hezur-erresistentziak hezuraren dentsitatearen eta kalitatearen integrazioa isladatzen du (Jiménez et al., 2009). Eta hezur-erresistentzia honen endekapenak osteoporosia sortzen du. Horrekin, hezurren hausturaren arriskua handitu egiten delarik. Osteoporosia gaur egun, hezurren gaixotasun arruntena bilakatu da.

Gainera, artikulazioetan elastikotasuna gutxitzen da. Giharretan aldiz, zelulen murrizketa eta gantz muskularraren edukiaren handitzea ematen da. Zelulen murrizketa honekin giharraren indarra eta tamaina murriztu egiten da eta horrek, limitazio articularra eta giharraren espezifikotasun mekanikoaren galera dakar (García et al., 2019).

Sarkopenia zahartzearen berezko alterazio progresibo bat da, gorputzeko proteina erreserbak murrizteak eragiten duena (Casanueva et al., 2008). Gaur egun, sarkopenia muskulu-masaren galera eta haren ezarpena baldintzatzen duten aldaketa guztiak deskribatzeko erabiltzen da. Muskulu-atrofiak oro har, indarra galtzea dakar bolumen gutxitzearekin batera, eta helduaren mugikortasun globalean alterazio negatibo bat sustatzen da, adin kronologikoa eta biologikoa handitzen diren heinean areagotzen dena (Drobnic, 2012).

2.2.2. Sistema kardiobaskularra

Pertsona nagusiak dira gaixotasun kardiobaskularren zamarik handiena duten mundu-mailako populazio-taldea, batez ere gaixotasun koronarioa eta miokardioko bihotzekoa jasaten dutelako (Ocampo eta Gutiérrez, 2005). Aldaketa funtzionalen artean, zelula miokardikoen eta kontraktileen kopuruaren murrizketa, bentrikulak betetzearekiko erresistentziaren handitzea, taupada-markagailuaren jardueraren jeitsiera, arterien zurruntasuna eta organo gehienek bihotz gastuaren eta odol fluxuaren beherakada ematen dira. Aldaketa estruktural hauek, bihotzeko erreserba gutxitzea, bihotz maiztasunaren erantzun eskasa arterietan eta arritmia dakartza (Salech et al., 2012).

Arnas sistemaren kasuan, prozesu osteoporotikoen, orno-hondoratze posibleek, kostaldeko kartilagoen kaltzifikazioak eta adinari lotutako bizkar-zifosiaren gehikuntzak inspirazioan zehar kutxa torazikoa hedatzeko gaitasuna murrizten dute. Guzti honek, diafragma posizio desegokian egotea ekartzen du eta honek kontrakzio eraginkor bat egitea eragozten du (Drobnic, 2012).

2.2.3. Sistema endokrinoa

Pertsona nagusien organismoaren funtsezko ezaugarria ingurumen estresaren aurrean homeostasiari eusteko gaitasuna pixkana galdu egiten dela da (Noriega et al., 2005). Sistema hau hormonek sintetizatzen dituzten zelulek osatzen dute (Barrett-Connor eta Stuenkel, 2001). Beraz, sistema honetan zahartzearekin batera ondorio ezberdinak ematen dira. Alde batetik, erraietako koipea handitu egiten da eta ehunak koipeztatzen dira. Beste aldetik, insulinarekiko erresistentzia eta diabetesa handiagoa da, adipokinen ekoizpena eta faktore inflamatorioak ematen bait dira (Salech et al., 2012). Erraietako koipea handitu egiten da urteak aurrera egin ahala. Honek, giharren barne eta kanpo geruzetan eragina dauka, giharren tamaina eta indarra murriztuz. Aldaketa hauek eta erraietako koipea handitzeak gainpisua eta obesitatea dakar eta horrekin batera hipertentsio arteriala, minbizia, alzheimerra, istripu zerebrobaskularrak, gaixotasun kardiobaskularrak eta diabetesa izateko arriskua handitu egiten da (Penny, 2017). Zahartzaroarekin batera gantza irabazi egiten da eta gihar masa aldiz galdu. Bi ondorio hauek 2 motako diabetesa izateko aukera handiagoarekin zuzenki lotuta daude (Al-Sofiani et al., 2019).

2.2.4. Nerbio sistema

Gainontzeko sistemetan bezala, nerbio sisteman ere endekapena ematen da. Honetan galera neuronal aldakorra, garuneko odol-fluxuaren gutxitzea eta nerbio bulkaden abiaduraren gutxitzea gertatzen da. Temperatura eta egarria kontrolatzeko mekanismoen alterazio bezalako aldaketa estrukturalak ere jasaten dira eta horrek asaldura intelektualak, mugimenduen geldotasuna eta urritasuna, zorabioak, erorketak, zotina, hipertemia eta deshidratazioa sortzen ditu ondoriotzat (Landinez et al., 2012).

2.2.5. Aspektu psikologikoak eta sozialak

Zahartzaroan ematen diren alterazio psikoafektibo ohikoenak faktore biopsikosozialen eragina dute eta horien artean depresioa, antsietatea eta estresa aurkitzen dira. 65 urtetik gorako gizabanakoen erdiak gutxienez alterazio psikikoren bat jasaten dute, non antsietatea eta depresioa nagusitzen diren (Chong, 2012).

Pertsona nagusien erlazio sozialak murriztu egiten dira. Batez ere, pertsona nagusien rol aldaketarengatik, bai eremu indibidualean, bai komunitate beraren esparruan. Eremu indibidualaren rolean aldaketak ematen dira, heriotzak zentzu berri bat hartzen du eta heriotzaren inguruko beldurra eta larritasuna gizabanako bakoitzak trantze horri buruz duen irudiari lotuta dago. Gainera, etapa honetan familia harremanak aldatu egiten dira. Pertsona nagusia independentea denean eta osasun

arazorik ez duenean familiarentzako laguntza da, baina arazoak agertzen direnean harremanak inbertitu egiten dira.

Zahartzaroa bestalde, galera afektiboak dakartza, hauek tentsio emozional handia eta bakardadearekin batera agertzen dira. Gizabanakoak komunitatearen barruan duen zereginaren dimentsioak bi ardatz nagusi ditu; lan jarduera eta gizarte jarduera. Aldaketa sozialek, gizabanakoan hautatutako taldeko kide ez izatearen sentsazioa eragiten dute eta gainera, haien gizarte harremanak nabarmen murrizten dira lan giroa uztean (Noriega et al., 2005).

Aurretik aipatu bezala, zahartzaroan babeseko sareak eta gizarte jardueretako parte hartzea murriztu egiten da. Honek pertsona nagusiak zaugarriagoak izatea ekartzen du. Covid-19ak egoera hau txarrera joatea ekarri du. Izan ere, Covid-19-a birusaren hedapena murrizteko gobernuek eta OMS-ek neurri ezberdinak hartu zituzten, hala nola, urruntze soziala eta isolamendua (Ordoñez eta Vazquez, 2020). Neurri hauek, pertsona nagusien eta haien familien animo egoeretan aldaketak eragin izan ditu. Izan ere, giza ezaugarririk garrantzitsuenetako bat beste batzuekin harremana izateko beharra da, eta hau izan da aldi berean, COVID-19aren kutsaduraren hedapenari aurre egiteko modurik eraginkorrena (Sureims et al., 2021). Gomendio hauek, pertsona nagusien osasun mentalean eragin sakona izan du. Eragin horien artean heriotzarekiko beldurra areagotu, familiarik banatzeko beldurra, lo egin ezina, amets gaiztoak, antsietate orokorreko sintomak eta sintoma depresiboak aurkitu dira besteak beste (Broche et al., 2021).

2.3. Jarduera fisikoak pertsona nagusiengan dituzten onurak

Aurreko puntuan zahartzaroan ematen den endekapen prozesuaren ondorioz organismoaren sistema ezberdinetan agertzen diren aldaketak aztertu dira. Baina zorionez, jarduera fisikoak baliabide ezin hobea da endekapen prozesu honen abiadura moteltzeko eta prozesu honen ondorioak kontrolatzeko. Jarduera Fisiko ezak gaixotasun ez kutsakorren ondoriozko hilkortasunaren arrisku faktore nagusietakoa da. Gainera, Jarduera fisiko nahikorik praktikatzen ez duten pertsonak, jarduera fisikoa praktikatzen dutenek baino heriotza arrisku handiagoa (%20-%30) dute. Jarduera fisiko maila altuagoak osasunean hobekuntza ezberdinak ekartzen ditu. Hala nola, edozein kausagatik heriotza tasa eta gaixotasun kardiobaskularren ondoriozko heriotza tasa murriztea, hipertentsio intzidentziak hobetzea, mota ezberdinetako minbiziak hobetzea, 2 motatako diabetesa, erorketen prebentzioa, osasun mentala (antsietate eta depresio sintomak murriztea), osasun kognitiboa, loa eta adipositatearen neurketa hobetu ditzake (OMS, 2021).

Ondoren, Jarduera fisiko programa ezberdinek pertsona nagusien organismoan sortzen dituzten hainbat onura aztertuko dira.

2.3.1. Sistema muskulu eskeletikoan

Jarduera fisikoaren praktikak sistema muskulu eskeletikoan onura desberdinak sortzen ditu; muskulu masa handitu, gihar indarraren hobekuntza, hezur dentsitatea handitzea eta malgutasuna areagotzea besteak beste (Andrade eta Pizarro, 2007).

Bi saioko maiztasuna eta hamabi asteko iraupena izan zuen programa batean, beheko gorputz adarreko gihar indarrean hobekuntzak lortu ziren. Programak honetan, indarra eta oreka landu ziren bihotz maiztasun maximo teorikoaren %54-%75 tarteko intentsitatean (Chalapud-Narváez eta Escobar-Almario, 2017).

Iraupen eta maiztasun berdineko beste interbentzio batean aldiz, zirkuito bidezko erresistentzia entrenamendu bat burutu zuten. Kasu honetan, indar maximoan hobekuntzak eman ziren. Interbentzio honen intentsitatea progresiboki igotzeko lau astetik behin zirkuitoan egindako serie kopuruaren igoera egin zen (Wieser eta Haber, (2007).

Zahartze prozesuarekin batera artikulazioen elastikotasuna baita murriztu egiten da (García et al., 2019). Baina ariketa fisiko programa ezberdinek hainbat onura ondorioztatu dituzte.

Sei hilabeteko iraupeneko jarduera fisiko programa batean, jolas, dantza, kirol egokitu, erresistentzia, indarra, oreka, koordinazio eta malgutasun ariketen entrenamenduaren bitartez, bai goiko zein beheko gorputz atalen malgutasuna hobetu zen. Programa honen maiztasuna hiru egunetakoa izan zen eta entrenamenduaren intentsitatea baxua (Matos eta Berlanga, 2020).

Hamabi aste iraun zuen beste ikerketa batean entrenamendu funtzionalaren bitartez beheko gorputz adarreko malgutasunean hobekuntzak lortu ziren. Programa honen maiztasuna bi egunetakoa izan zen eta interbentzioaren progresioa bermatzeko, lau astetik behin errepikapenak murriztu zituzten (Fuentes et al., 2018).

Intentsitate baxu eta ertainean burututako hogeitaz asteko programa multikonponente batean pertsona nagusien autonomia funtzionala hobetzea lortu zen (Méndez Tacuri eta Calle, 2016).

Aurretik aipatutako onurez gain, programa ezberdinetan ariketa fisikoaren bitartez osteoporosian ere onurak lortu izan dira. Zortzi hilabeteko iraupena, bi egunetako maiztasuna eta 30 minutuko saioen iraupena izan zuen jarduera fisiko programa batean, bi entrenamendu mota burutu ziren. Entrenamendu biak indarreko ariketetan oinarritu ziren. Talde batek programa etxean burutu zuen. Entrenamenduaren intentsitatea baxua izan zen eta egiten zituzten errepikapen kopuruak 10-15 bitartekoak izan ziren. Bigarren taldeak, intentsitate altuko entrenamendua burutu zuen.

Errepikapen kopurua 5-ekoa izan zen. Intentsitate altuan lan egin zuen taldeak hezuraren dentsitate mineralean eta errendimendu funtzionalean hobekuntza handiagoak lortu zituen, intentsitate baxuan entrenatu zuen taldeak baino (Watson et al., 2018).

2.3.2. Sistema kardiobaskularrean

Ariketa fisikoaren praktikaren bitartez onura ezberdinak lortu daitezke sistema kardiobaskularrean: istripu zerebrobaskularrak prebenitu, gaixotasun baskular periferikoaren tratamenduan lagundu eta sedentarismoa eta gaitasun fisiko baxua murriztea besteak beste (Landinez et al., 2012). Gainera, bihotzaren bolumen sistolikoa handitu daiteke, atsedeneko eta lan submaximoko bihotz maiztasuna gutxitu, potentzia aerobikoa eta biriketako aireztapena handitu eta presio arteriala gutxitu (Andrade eta Pizarro, 2007).

Bi egunetako maiztasuna eta hamabi asteko iraupeneko ikerketa batean, zirkuito erako erresistentziako entrenamendu baten bitartez pertsona nagusien VO₂ maximoa %12 handitzea lortu zen (Wieser eta Haber, 2007).

Beste interbentzio batean, zikloergometroan entrenamendu interbalikoak egin ziren. Bertan, pertsona nagusiak 20 minututako saioak egiten zituzten VO₂ maximoaren %30-%70 bitarteko intentsitate batean. Emaitzei dagokionez, VO₂ maximoa %16-a igotzea lortu zuten (Stockwell et al., 2016).

Hamabi asteko beste interbentzio batean, pertsona nagusien entrenamendua bi faseetan zatitu zen. Sei asteko egokitzapen fase bat burutu zuten, eta ondoren, sei astetan zehar HIIT (High Intensity Interval Training) entrenamendu bat egin zuten. Entrenamenduak zikloergometro batean aurrera eramane zituzten, intentsitatea VO₂ maximoaren %50 baino handiagoa izanik (Grace et al., 2018).

Zortzi asteko beste interbentzio batetan pertsona nagusien asteko pausu kopurua 250 pausoetan handituz, haien funtzio kardiobaskularren hobekuntzak ikusi zituzten (Linderman et al., 2009).

2.3.3. Sistema endokrinoan

Ariketa fisikoaren praktikak, profil lipidikoa eta intsulinarekiko sentikortasunean baita hobekuntzak dakartza (Andrade eta Pizarro, 2007).

Bi saioko maiztasuna eta hamabi aste iraun zuen zirkuito bidezko erresistentzia entrenamendu programa batean gihar masa igotzea (kilo erdia) lortu zen (Wieser, eta Haber, 2007).

Errebisio bibliografiko batean indar entrenamendu programa ezberdinak aztertu ziren, eta ondorioztatu zuten 2-3 saioretako maiztasuna eta %60-85 bitarteko intentsitatera lan egin zuten programetan gaixotasunak izateko arrisku faktoreak murrizten direla (hala nola, kantzerra eta diabetesa) eta gaitasun mitokondrial aldiz, handitu (Mayer et al., 2011).

2.3.4. Nerbio sisteman

Zahartzaroaren ondorioz nerbio sistemak aldaketa ugari izaten ditu: asaldura intelektualak, mugimenduen geldotasuna eta erorketak besteak beste (Landinez et al., 2012). Ariketa fisikoaren praktikari esker, giharren hipertrofia ematen da eta horrek gihar indarra handitzea eta oreka maila igotzea eragiten du. Oreka mailaren eta indarraren igoera hau erorketen murrizketarekin zuzenki erlazionatuta dago (Fuentes et al., 2018).

Indarra eta orekaren entrenamenduan oinarritutako interbentzio batean, erorketak izateko arriskua nabarmen murriztu zen. Pertsona nagusiek programa hau etxean burutu zuten hiru egunetako maiztasunarekin hamabi asteetan zehar (Gschwind et al., 2013).

Bi saioko iraupena eta zortzi hilabete iraun zuen ariketa fisiko beste programa batean, indarra, erresistentzia kardiobaskularra, malgutasuna, oreka eta koordinazio entrenamendua burutzean mugimenduen bizkortasuna handitu zela ondorioztatu zuten (Martínez et al., 2021).

Asaldura intelektualen kasuan ere, ariketa fisikoaren praktikak onurak dakartza. Bederatzi asteko iraupena eta hiru egunetako maiztasuna izan zuen programa batean, intentsitate ertaineko (1RMren %60) entrenamendua egin zen. Bertan, indar entrenamenduak funtzio kognitiboak eta zentzumen prozesamendu goiztiarrean hobekuntzak izan zituztela ikusi zuten (Gül Y Özkaya et al., 2017).

Oso iraupen txikiko programa batean baita, pertsona nagusien oroimenean eta hitzen antzematean ere hobekuntzak lortu ziren. Programaren iraupena lau astekoa izan zen eta maiztasuna hiru egunetakoa. Kasu honetan, indarra, koordinazioa, oreka eta erresistentzia kardiobaskularra konbinatzen zituen entrenamenduak egin zituzten (Morales et al., 2020).

2.3.5. Aspektu psikologiko eta sozialak

Aspektu psikologiko eta sozialen kasuan, ariketa fisikoaren praktikak pertsonaren autokontzeptua, auto-estimua eta gorputz-irudia hobetzen laguntzen du. Aldi berean, estresa, depresioa, antsietatea, tentsio muskularra eta loezina gutxitu eta sozializazioa hobetzen du (Martin, 2018).

Erresistentzia kardiobaskularra, oreka, koordinazioa eta malgutasunaren entrenamenduan oinarritu zen 8 hilabeteko interbentzio batean, astean 2 saioko maiztasunarekin, pertsona nagusien autoestimua igotzea eta antsietate eta depresio mailak jeistea (Martínez et al., 2021) lortu zuen. Beraz, aurretik aipatu bezala, ariketa fisikoak antsietate eta depresioaren murrizketa eta autoestimaren igoeran eragin zuzena dauka.

Astean 2 eguneko maiztasuna eta 8 hilabete iraun zuen beste ikerketa batean, indarra, erresistentzia kardiobaskularra, oreka, koordinazio eta malgutasun entrenamenduak egin zituzten. Ikerketa honen emaitzak aurrekoaren ildo beretik doaz. Izan ere, interbentzio hau burutu ostean, pertsona nagusien autoestimua igo eta antsietatea eta depresioa murriztu ziren (Martínez et al., 2021).

Puntu honetan ikusten den bezala, ariketa fisiko programa ezberdinek gorputzeko sistema ezberdinetan hainbat onura lortu izan dituzte. Programaren ezaugarriak oso ezberdinak izan dira eta osasunarekin erlazionatutako sasoi fisikoaren aldagaien konbinaketa ezberdinetan oinarritzen dira. Beraz, pertsona nagusientzako onuragarriak izan daitezkeen ariketa fisiko mota ezberdinak daude. Pertsona nagusien profilak, egoerak eta gustuak baita oso ezberdinak izan daitezke. Hori dela eta, ariketa fisiko programa egokiak diseinatzea bezain garrantzitsua, pertsona nagusiei eurentzako egokiak diren ariketa fisiko programa aukeratzen laguntzea da. Eta baita, ariketa fisikoa egitean hastapen fasean laguntzea ariketa fisiko programarekiko atxikimendua barneratzeko.

2.4. Sedentarisismoaren Ondorioak

Aurreko puntuan adierazi den bezala, asko dira jarduera fisikoaren praktikak eskeintzen dituen onurak. Beraz, honen gabezia pertsona nagusien bizitzan baita, arrisku garrantzitsuak dakartza.

Nahiz eta Jarduera Fisikoak zahartzaroan dituen onurak zeintzuk diren jakin, oraindik ere munduan pertsona sedentario asko daude. 2020ko Europako osasun inkesten emaitzen arabera, 65-74 urte bitarteko gizonezkoen %33.1 sedentarioa zen eta emakumezkoen kasuan %39.2-a. Eta 75-84 urte bitarteko pertsonen kasuan, gizonezkoetan %43.2 eta emakumezkoetan %55.5. 85 urte baino gorako pertsonen kasuan, gizonezkoen %60.2 sedentarioa zen eta emakumezkoen kasuan %79-a

(Encuesta Nacional de Salud, 2017). Modu honetan ikusten da urteak pasa ahala jendea sedentarioagoa bilakatzen dela.

Pertsona nagusien artean sedentarismo datuak oso altuak direnez, OMS-ek, sedentarismo indize horiek aldatu nahian, burutu beharreko gomendioak zehaztu ditu egoera honi aurre egiteko. Hori dela eta, erakunde ezberdinek baita, jarduera fisikoaren sustapenerako gidak garatu dituzte pertsona nagusiei eta baita pertsona hauekin lan egiten duten tekniko ezberdinei baliabideak eskeintzeko. Ondoren, gida ezberdinak aurkezten dituzten hainbat jarraibide eta estrategia aurkezten dira.

2.5. Jarduera Fisikoaren sustapena pertsona nagusietan

Sedentarismo honi aurre egin nahian munduko hainbat erakunde jarduera fisikoaren sustapenean zentratu dira. Sustapen hori aurrera eramateko hainbat estrategia proposatu dituzte. Ondorengo tauletan, erakunde ezberdinek proposatu dituzten estrategia eta sustapen programa ezberdinak aurkezten dira (Ontario, 2003; Ballesteros Arribas et al., 2007; British Heart Foundation, 2008; Centers for Disease Control and Prevention, 2011; Casajus, 2013; Zealand, 2013; Loprinzi, et al., 2015; European Union, 2017; King et al., 2019; Ayuntamiento de Pamplona, 2021).

Taula 1

Munduko erakundeen jarduera fisiko sustapenaren dibulgazioen estrategiak

ESTRATEGIAK	
Dibulgazioa	
- Banakako eta taldeko aholkularitza eta orientazioa	- Jarduera fisikoaren portaerak aldatzeko laguntza ematen duten sare sozialak
- Gizarte laguntzak	sortzea, indartzea eta mantentzea
- Sariak eskeini	- Jarduera fisikoa egiteko taldeak sortu
- Helburuak zehaztu	- Jarduera fisikoa edozein adinetan
- Komunitate mailako kanpainak: mezuak telebistan, irratan, egunkarian...	modu seguruan egin daitekeela indartu
- Banakako osasun programak	- Pertsona nagusietan jarduera fisikoaren onurei inguruko informazioa eman
	- Kirol politikak urte gutxitan ez aldatzea

Taula 2

Munduko erakundeen jarduera fisiko sustapenaren ariketa fisiko gomendio zehatzen estrategiak

ESTRATEGIAK

Ariketa Fisiko Gomendio Zehatzak

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - >150 minutu intentsitate ertainean - 75 minutu intentsitatea altuan - 300 minutu astean intentsitate baxuan - Indarra: 2 saio astean. - Malgutasuna: 3 saio astean. Mantendu edo hobetzeko 2 saio 10' astean | <ul style="list-style-type: none"> - Erresistentzia kardiobaskularra: - Asteko egun gehienetan 30'-ko ibilaldiak intentsitate ertainean. - 30' edo gehiagoko ariketa aerobikoak intentsitate ertain edo altuan asteko 5 eguneko maiztasun minimoarekin - Oreka: 3 saio astean - 3 saio astean jarduera fisiko mixtoak egiten 60' intentsitate ertain eta altuan |
|---|--|
-

Taula 3

Munduko erakundeen jarduera fisiko sustapenaren oztopo arkitektonikoen estrategiak

ESTRATEGIAK

Oztopo Arkitektonikoak

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera fisikorako oztopoen inguruko arazoak konpontzea - Jarduera fisikorako tokietarako sarbidea sortzea edo hobetzea - Senderoak, instalazioak...sortu - Kaleko argiak hobetu, errepideak eta kaleak gurutzatzeko erraztasuna eta segurtasuna, hiri paisaiaren estetika hobetzea | <ul style="list-style-type: none"> - Bidegorriak sortzea eta hobetzea - Garraio publiko egokia eta fidagarria - Garraio publikoaren hobekuntzak: ordutegian, geltokiak... - Ibiltzeko eta bizikletaz ibiltzeko ibilbide seguruak, erabilgarriak eta praktikoak |
|---|--|
-

Taula 4

Munduko erakundeen jarduera fisiko sustapenean programa berriak aktibatzekeo estrategiak

ESTRATEGIAK

Programa Berriak Aktibatu

- | | |
|---|---|
| - Iraupen luzeko zentroetan jarduera fisikoa aktibatzea | - Lehiaketa gabeko jarduera fisikoa aktibatzea |
| - Etxez etxeko arreta zerbitzarietan jardute programa eraginkorrak sar daitezen sustatzea | - Etxean egin daitezkeen jarduera fisiko programak aktibatu, desplazamenduak ekiditzeko |
-

Taula 5*Jarduera fisiko sustapenerako programa espezifikoak*

Jarduera Fisikoaren Sustapenerako Programa Espezifikoak			
Herraldea	Erakundea	Programaren Izena	Jarduera fisiko mota, helburua eta iraupena/maiztasuna
West Virginia	Department of Community Medicine	Wheeling Walks	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Sedentarioak ziren pertsona nagusiek egun guztien 30 minutuko ariketa fisikoa egitea. - Jarduera fisiko mota: Bizikleta ibilaldiak - Populazioa: 50-65 urte bitarteko pertsonak - Iraupena/maiztasuna: 12 hilabete
New York	New York Department of Health	B.C. Walks	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Egunero 30 minutuko ibilaldi sustatzea 40-65 urte bitarteko nahiko aktibo ez dauden pertsonen artean - Jarduera fisiko mota: Ibilaldiak - Populazioa: 40-65 urte bitarteko pertsonak - Iraupena/maiztasuna: 8 aste
Estatu Batuak	Stanford University School of Medicine	Health Improvement Program	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Jarduera fisiko areagotu eta parte hartzaileen pisua murriztu - Jarduera fisiko mota: Ibilaldiak eta indar ariketak - Populazioa: Stanfordeko unibertsitateko mantenimenduko langile gizonezkoak - Iraupena/maiztasuna: 16 aste

Jarduera Fisikoaren Sustapenerako Programa Espezifikoak			
Herraldea	Erakundea	Programaren Izena	Jarduera fisiko mota, helburua eta iraupena/maiztasuna
Nafarroa	Universidad Publica de Navarra	Programa de Salud para prevenir la osteoporosis en las mujeres de Navarra	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Nafarroako emakumeen osteoporosiaren prebalentzia murriztea. - Jarduera fisiko mota: ibilaldiak, luzaketak, aerobiko eta indar ariketak. - Populazioa: 50 urte baino nagusiagoak diren emakume nafartarrak - Iraupena/maiztasuna: 10 hilabete
Estatu Batuak	Center for Disease Control and Prevention	¡En forma y fuerte!	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Ariketa fisikoaren maiztasuna hobetu, indarra handitu, artritisurekin lotutako artikulazioen mina eta zurruntasuna murrizten ditu eta ariketa fisikoa egiteko gaitasunean konfiantza hobetzea. - Jarduera fisiko mota: Luzaketak, oreka ariketak, indar eta aerobiko jarduerak. - Populazioa: Osteoartritisa duten helduak eta sedentarioak direnak eta beheko gorputz adarretan mina eta zurruntasuna dutenak. - Iraupena/maiztasuna: 8 aste
Boston	Boston Public Health Commission	NeighborWalk	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Pertsona nagusiak aktiboagoak bilakatu eta harreman sozialak landu. - Jarduera fisiko mota: Ibilaldiak - Populazioa: Arraza aniztasuneko auzoetako pertsonak. - Iraupena/maiztasuna: Asteaz gutxienez 30'-60'-ko irteera bat.

Jarduera Fisikoaren Sustapenerako Programa Espezifikoak			
Herraldea	Erakundea	Programaren Izena	Jarduera fisiko mota, helburua eta iraupena/maiztasuna
Iruña, Espainia	Iruñeako udaletxea	Martxan	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Sedentarioak diren pertsonak aktiboagoak bihurtzea. - Jarduera fisiko mota: ibilaldia, ariketa fisikoa eta oroimena lantzeko ariketak. - Populazioa: 65 urte baino gehiagoko pertsona nagusiak. - Iraupena/maiztasuna: 5 hilabete.
Espainia	Agencia española de seguridad alimentaria y nutrición	Estrategias NAOS	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Herritarrak sentsibilizatu eta informatu elikadura orekatua eta jarduera fisikoaren praktika erregularra duten eragin positiboaz, bizi-ohitura osasungarriei buruzko informazioa hobetuz. - Jarduera fisiko mota: Aukeratu bakoitzaren lehentasun eta trebetasunetara gehien egokitzen den jarduera mota - Populazioa: Adin guztietako pertsonak - Iraupena/maiztasuna: Iraunkorra
Estatu Batuak	Center for Disease Control and Prevention	CDC's StairWELL to Better Health Program	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Jendeak eskailerak erabiltzea igogailua erabili ordez. - Jarduera fisiko mota: Eskailerak igo - Populazioa: CDCko eraikin batean bizi diren pertsona nagusiak - Iraupena/maiztasuna: 3 urte eta erdi

Jarduera Fisikoaren Sustapenerako Programa Espezifikoak			
Herrialdea	Erakundea	Programaren Izena	Jarduera fisiko mota, helburua eta iraupena/maiztasuna
Estatu Batuak	Center for Disease Control and Prevention	Programa acuático de la fundación artritis	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Artritisa daukaten pertsonen bizi kalitatea hobetzea - Jarduera fisiko mota: Mugikortasun articularra, arnasketak, luzaketak eta intentsitate baxuko jarduera aerobikoak uretan - Populazioa: Pertsona nagusiak eta artritisa dutenak. - Iraupena/maiztasuna: 6-10 aste


3. Arrotxapea auzoko pertsona nagusien bizi ohiturak suspertzeko proiektu pilotoaren proposamena

3.1 Iruñeako Arrotxapea auzoko datu demografikoak

Arrotxapea auzoa Nafarroako hiriburuan aurkitzen den auzo bat da. Hau, Iruña hiriburuaren iparraldean aurkitzen da. Iruñeako Arrotxapea auzoan, 65 urtetik gorako 4.467 pertsona bizi dira. %41,62-a gizonezkoak eta %58,38 emakumezkoak. Ondoren, Iruñeako Udalaren erroldaren grafikoa aurkezten da. Bertan, 65 urtetik 99 urte bitarteko adin tarte bakoitzean dauden gizon eta emakume kopurua adierazita dator.

Irudia 1

Iruñeako Udalaren errolda



3.2 Iruñeako Arrotxapea auzoko Jarduera Fisiko eskaintza publikoa pertsona nagusiei zuzenduta

Aire librean dauden esparru publikoak:

- Parkeak:
 - *Kopurua*: Bat.
 - *Kokapena*: Ibai parkea Arga ibaiaren ertzetik doa. Arrotxapeatik pasatzen den ibai parke honen zatia Magdalenako baratzetatik, “Cuatro vientos”-eko zubiraino doa.
 - *Zabalera*: 1,5 kilometro.
- Gimnasioak
 - *Kopurua*: Bat.
 - *Kokapena*: Arga ibaiko pasalekuan, Runa parkean (auzoaren hego-ekialdean).
 - *Deskribapena*:
 - Erresistentzia kardiobaskularra lantzeko makinak: 5
 - Goiko gorputz adarreko indarra lantzeko makinak: 4
 - Beheko gorputz adarreko indarra lantzeko makinak: 1
 - Oreka dinamikoa lantzeko makinak: 2
 - Koordinazio okulo-manula lantzeko makinak: 1

Instalakuntza publiko itxiak:

- Nagusien egoitza
 - *Kokapena*: Arrotxapea auzoaren erdialdean.
 - *Eskaintza*: Astean zehar mantentze gimnasioko bi ordu.
- Aranzadi instalakuntzak
 - *Kokapena*: Auzoaren ekialdean. Arga ibaia gurutzatuz.
 - *Eskaintza*: Iruñeako udalak jarduera ezberdinak eskeintzen ditu.
 - Gimnasia aerobika modernoa
 - Maiztasuna: 3 egun astean.
 - Iraupena: 60 minutu.
 - Ezaugarriak: erabilera anitzeko eta intentsitate ertain/baxuko kirol-eskaintza da, pertsona nagusien sasoi fisiko hobetzera bideratua dagoena.
 - Yoga.
 - Maiztasuna: 2 egun astean.
 - Iraupena: 60 minutu.

- Ezaugarriak: izaera orokorrekoa, erlaxatzera eta meditzatzera zuzenduta dago eta jatorri hinduko diziplina honetako teknikak erabiltzen dituzte.
- Civicox Juslarocha
 - *Kokapena*: Arrotxapea auzoaren hego-ekialdean.
 - *Eskaintza*:
 - Ibilaldiak
 - Maiztasuna: 2 egun astean.
 - Iraupena: bi ordu eta erdi.
- Arrotxapeako polikiroldegia
 - *Kokapena*: Arrotxapea auzoaren mendebaldean.
 - *Eskaintza*:
 - Gimnasia aerobika modernoa
 - Maiztasuna: 3 egun astean.
 - Iraupena: 60 minutu.
 - Ezaugarriak: erabilera anitzeko eta intentsitate ertain/baxuko kirol-
eskaintza da, pertsona nagusien sasaoi fisiko hobetzera bideratua dagoena.
 - Yoga.
 - Maiztasuna: 2 egun astean.
 - Iraupena: 60 minutu.
 - Ezaugarriak: izaera orokorrekoa, erlaxatzera eta meditzatzera zuzenduta dago eta jatorri hinduko diziplina honetako teknikak erabiltzen dituzte.

3.4 Proiektu Pilotoaren Faseak

Aurrerago azaldu den bezala, proiektu honen helburua, Iruñeako Arrotxapea auzoko pertsona nagusi sedentarioak instalakuntza publikoetan eskeintzen den ariketa fisiko programa egoki batean parte hartzen laguntzea da. Proiektua urrian hasiko da eta uztailan bukatu. Honek, fase ezberdinak izango ditu pertsonak modu progresibo batean bizi ohitura aktiboak lortzeko eta ariketa fisiko programa bati hasiera emateko.

3.4.1 Lehenengo Fasea: Proiektuaren dibulgazioa

Proiektu pilotoaren dibulgazioa egiteko, lehendabiziko pausua Iruñeako zerbitzu sozialekin harremanetan ipintzea izango da. Arrotxapea auzoan eskusio sozialean edo sedentarioak diren pertsona nagusiei proiektu honen berri emateko laguntza eskatuko zaie. Gainera Arrotxapea auzoko osasun zentroan eta farmazietan kartel informatiboak jarriko dira. Eta Iruñeako Udalaren sare sozialen bitartez ere informazioa eskeinituko da.

Informazioa emateko modua:

- Kartel informatiboak
 - o Bertan, proiektuaren ondorengo informazioa zehaztuko da:
 - Ze populazio taldeari bideratuta dagoen.
 - Iraupena.
 - Maiztasuna.
 - Helburu nagusia.
 - Kontaktuzko telefonoa eta korreo elektronikoa.
- Sare sozialak
 - o Bertan, proiektuaren ondorengo informazioa zehaztuko da:
 - Ze populazio taldeari bideratuta dagoen.
 - Iraupena.
 - Maiztasuna.
 - Helburu nagusia.
 - Jarduera fisikoaren onurak.
 - Kontaktuzko telefonoa eta korreo elektronikoa.

